

Altza

24 orduz irratia piztuta


Larraitz Garmendia (lfnoa.: 391267)

altza Irrati Tailerrak 24 orduz emitituko du larunbatean, hilak 18. Aurten bigarren aldiz, zuzenean eta etengabe arituko da martxan auzoko irratia gau eta egun.

Larunbatean, 10.00etan hasi eta igandeko 10.00ak arte iraungo duen irratsaioan, gazte asko pasatuko da irratitik.

Ekintza honek irratia ren ikastaro hasierarekin bat egiten du eta honenbestez parte hartzaile guztiek prestatuta dituzte irratsaio bereziak. Azpimarra daiteke ekintza honek sortu duen lanerako gogoia. Lehengo urtean, esate baterako, 23 pertsonak parte hartu zuten eta ekintza arrakastatsua izan zenez, aurten ere beste hainbestek izena eman dute larunbaterako.

Hau izan daiteke Altza irratia tailerra ezagutzeko aukera paregabea. Informazioa nahi izanez gero, 351149 telefonora dei daiteke.



Bigarren aldiz aurten 24 orduz emitituko du Altzako Irrati Tailerrak.


Herrera

Gipuzkoako Bolo Txapelketa igandean

Igandean, hilak 19, Herrerako bolatokian Gipuzkoako Bolo Txapelketa jokatu da. Lau maila izango dira, haurrak, gazteak, helduak gizonezkoak eta helduak emakumezkoak. Izen

ematea egun berean egin daiteke goizeko 08.00etatik 12.00etara eta arratsaldeko

16.00etatik 17.00etara Herrerako Kirol Elkartean bertan.



Bertso afaria Herrerako Kirol Elkartean

Gaur ostirala, hilak 17 gaueko 21.00etatik aurrera, bertso afaria egingo da Herrerako Kirol Elkartean. Jokin Sorozabal, Maddalen Lujanbio, Xabier Legarreta, eta Iker Osa bertsolariak izango dira eta musikak ere alaituko du afaria, Laura eta Maider trikitilariak izango baitira bertan. 50 lagunentzako lekua besterik ez dagoenez azkar ibili izena ematen. Herrera Kirol Elkartea urrezko ezteiak ospatzen ari da eta ekintza hau ospakizun hauen barne antolatu da.

aiestaran

Burdindegia

Sukalderako tresneria • Gortinentzat errailak
Sarraildegia eta segurtasuna • Eskulekuak eta burdineria
Erremintak eta brikolajea


Aldakonea 6. Tfnoa.: 27 29 00 • Urbieta 25. Tfnoa.: 46 51 13

JUAN ALMANDOZ


AUTOAREN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATE KONPONKETAK
• PEUGEOT-TALBOT zerbitzua
• ALFA ROMEO-n espezializatua

Marinelen plaza • Tfnoa.: 45 79 02 eta 45 45 17 • DONOSTIA

MARTUTENENKO JAIK



Datorren urterarte adio esan digute
Martuteneko jaiak. Argazkiotan ikus
daitekeenez, denetarik izan da aurtengo
egitarauan: bakailao txapelketa -Juan Mari
Arzak epaimahaian zela-, sagardoaren
eguna, trikitixa, txalaparta...



Argazkiak:
Imanol
Otegi

